

## URTEKO GRAL-MAL TXOSTENA

2023-24 ikasturtea

### EGINDAKO JARDUERAK

#### Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradua eta Negozioen kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradu Bikoitza

- Egoitzako GrAL-MAL batzordea, bitan bildu da: 2023/10/17 eta 2024/02/23.
- Urteroko GrAL mintegirako bi data proposatzen dira, apirilaren 16 eta 18a, euskera eta erderaz hurrenez hurren, eta azkenik, apirilaren 16 eta 23an izatea erabakitzen da.
- Beste urte batzuetan bezala, Enea Ispizua eta Jesus Olea egin dute mintegia egiteko, aurtengo ikasturterako doituak edukiekin.
- Aurreko ikasturteetako esperientziaren argitan, gai kopuruaren txikitze bat adosten da, matrikula kopuruari doituak, 153tik 124ra, eta Sailentzako irakaskuntza karga proportzionalarekin.
- Empar Pineda, María Aculodi, Euskadiko Graduatu Sozialen Kontseiluko eta Justizia Sozial sarietarako GrALen aukeraketa egin da.

#### Gizarte Langintzan Gradua

- GrAL prozesua, data garrantzitsuak:
  - Mintegia, irailak 18an, aurreko urtearekiko, ia 12 egun lehenago egin da.
  - Urriak 14ko astean esleipenak argitaratu dira.
- Irakasleen gaien zerrendak berriak dira eta sailei tutoreak zeintzuk diren galdetu zaie.
- Ikasturte honetan deialdi guztiak ADDiren bitartez kudeatu dira.
- Irakaskuntza gida hobetu da, arautegia berriari jarraiki eta kezka sortu dituzten gauzak kontuan izanda. Tartean: ADDIn lanak igotzeko prozesua, ebaluazio portzentaiak eta EHUko arautegi begira sartu beharrekoak eta aurretik gure arautegian sartu genituenak. Hobekuntza bezala, aipatu behar da hemendik aurrera ez dagoela 2. Barne eranskinik, eta irakasleek eranskin bat gutxiago bidali beharko dutela idazkaritzara. Depositoa egiteko eta ADDIn igotzeko baimena irakaskuntza gida barruan sartu dira.
- ADDI prozesua. 2023-24 ikasturteko deialdi guztietan jarri da martxan.

#### Laneko Segurtasun eta Osasuna Unibertsitate Masterra

- Ikaslegoari prozesu akademikoari buruz informazioa luzatu zaio bi momentutan: lehenengo mailako ikasleei harrera jardunaldian, eta bigarren lauhilabetearen erdialdean, MALa irailean matrikulatu behar dutela eta hilaren 30erako gaia eta zuzendaria izan behar zutela.
- Webean tutore zerrenda eguneratu da.
- Azken ikasturteko MAL izenburuen zerrenda webera gaineratu da.

#### Giza Baliabideen eta Enpleguaren kudeaketa masterra

- Tutoreen zerrenda eguneratu da.
- Gelan MALaren prozesu akademiko eta administratiboaren berri eman zaio ikaslegoari.

- MAL epai-mahaiak jakintza eremuen arabera berregin dira. Horrela, hiru epai-mahai egin dira bi deialdietan: 1) Zuzenbidea, 2) Ekonomia eta 3) Soziologia eta Psikologia Soziala.

## **EMAITZA KUANTITATIBOAK / RESULTADOS CUANTITATIVOS**

### **Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradua**

- 79 esleipen deialdi ohiko eta ezohikoan (iraila-urria).
- 84 GrAL defendatu ziren: 50 ekainean, 25 irailean. 3 ikasle izan ziren gainditu ez zutenak. Egindako defentsa guztietatik, 19 (%22,62) euskaraz izan dira, eta 65 (%77,38), erderaz.

### **Negozioen kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradu Bikoitza**

- Negozioen kudeaketan graduko lanen eskaintzatik 24 gai aukeratu dira automatrikulan (guztira 32 ziren), eta bestalde, LLHH eta GGBB gradutik eskainitako 30etik, ikaslegoak 24 aukeratu ditu (irailean).
- 26 GrAL defendatu ziren: 20 ekainean eta 6 irailean. Egindako defentsa guztietatik, 11 (%44) euskaraz izan dira, eta 14 (%56), erderaz.
- Matrikulatutako ikasleria guztira 17 izan dira, 12k bi GrALak defendatu eta gainditu dituzte, eta graduatu dira. Bik bakarra defendatu dute, eta hiruk batere ez.

### **Gizarte Langintzan Gradua**

- 2024-25 ikasturterako 153 GrAL daude matrikulatuta.
- Orokorrean, GrAL prozesuari buruz lortutako inkestean emaitza kuantitatibotan, 4 baino puntuazio altuagoa lortu da.
- Defendaturiko GrALak: otsailean 7 (4 euskeraz eta 3 erderaz), Uztaileko deialdian 89 (62 euskeraz eta 27 erderaz), eta iraileko deialdian 37 (19 euskeraz eta 18 erderaz). Guztira, 133.

### **Laneko Segurtasun eta Osasuna Unibertsitate Masterra**

- 29 MAL defendatzen dira, 24 otsailean eta 5 maiatzean. Bat hurrengo ikasturterako gelditzen da.
- 13 tutore parte hartzen dute, aurreko urtetan baino kopuru pixka bat altuagoa.
- Notak, 7,5 eta 9 artean daude.
- Gai aniztasun nahiko handia egon da. Autobusak, eskola jantokiak, arrisku kimikoak e.a. Nahiko berritzaileak diren batzuk, "Protocolo de actuación para eliminar nidos de Avispa Asiática" adibidez.
- Horietako 6 enpresetako praktikekin zuzenean lotuak daude.

### **Giza Baliabideen eta Enpleguaren kudeaketa masterra**

- 16 MAL defendatu dira, otsailaren 10ean eta maiatzaren 6an.
- 9 tutore hartu dute parte.
- Lortutako batezbesteko nota 8,1 izan da.
- Gai mota ezberdinak detektatzen dira, analisi psikosozialak edo aspektu juridiko eta legalak adibidez.

## EMAITZA KUALITATIBOAK

### Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradua eta Negozioen kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradu Bikoitza

- Aurreko ikasturtearekin aldaratuz, defentsa kopuru antzekoa mantentzen da. Hala ere, LLHH eta GGBB graduan ez gaindituen kopurua igo da. Bestalde, euskaraz defenditutako GrAL kopuruaren beherakada eman da, eta erdaraz eta euskaraz defendatzen direnen arteko kopuruaren aldea handia izaten jarraitzen du.

### Gizarte Langintzan Gradua

- Ikasleei egin zaien GrAL prozesuari buruzko inkestaren komentarioak: ondoko gauzak azpimarratzen dira positibo bezala: aukeratutako gaian lan egin eta sakontzeko aukera (17 ikaslek), egiteko autonomia (12), ikasitako ezagutzak garatzea (10), tutorearen laguntza (5), ikerketa lan eta lan zientifikoak egiten ikastea (4), lortutako abileziak (2), lan munduratzera begira balio du, praktikekin lotzen saiatzen da, literatura sortzeko. Bestalde, negatibo bezala: prozedurari buruz informazio urria (10), tutorearen konpromiso minimoa behar dela, tutoretza gehiago (9), GrALa kurso hasieratik egitea (5), entregatzeko epeak (3), defentsa data gehiago (3), orrialde muga kentzea horrela eskatuko balitz (2), beste ikasle-ikasturteko lanak konpartitzea (2), lanaren atalak gehiago azaldu behar dira (2), ebaluazio era, gaiari buruzko informazioa, deialdiak aurreratu, irakasle esleipenak ez egotea notaren menpe, tutorea aldatzeko aukera, motzago izatea, prozesuan pautak gehiago egotea, ikasleriarekiko presioa, notak lehenago izatea.

### Laneko Seguratasun eta Osasuna Unibertsitate Masterra

- Zuzendarien asebetetzea: Datu hau ez da ondo jasotzen. (Hurrengo ikasturterako ekintza bat dago zehaztua).
- Ikasleen asebetetzea: egreso perfilari buruz galdetzean, MALari buruz hiru galdera daude (kudeaketa, arautegia, laguntza eta zuzendaritza). Hiru galderen batez bestekoa 4,14 da (21 erantzun egon dira).

### Giza Baliabideen eta Enpleguaren kudeaketa masterra

- Zuzendarien asebetetzea: datu hau ez da ondo jasotzen. Ekintza bat jaso behar da. Pendiente.
- Balorazioak:
  - 8. Galderan. Zuzendaritza eta MAL arautegiaren balorazioa: 4,29/5.
  - 9. Galderan. MAL kudeaketan balorazioa: 4,5/5.

## HURRENGO IKASTURTERAKO ALDAKETAK

### Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradua eta Negozioen kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradu Bikoitza

- Irakaskuntza gidaren moldaketan lan egiten jarraitu beharko dugu, gradu zein gradu bikoitzekoa, AI tresnen erabilera eta aipamenen eran barnebilduz (adibidez, Chat GPT), baita etikoki eraginen bat izango zuketean GrALen arautzea, nahiz eta hauetako bateren bat jadanik 24-25 ikasturterako batzuk sartu diren.

### **Gizarte Langintzan Gradua**

- Falta da: webgunean ADDIrako esteka jartzea. Behin aurreko lanak jarrita daudenean egingo da.
- Liburutegiarekin jarriko gara kontaktuan ADDI akademikora igotzeko prozesuari buruz hitz egiteko aurreko urtetakoak..
- Trantsizio bekak eskatzeko, GrALarik gabe batezbestekoa ateratzeko aukeraz hitz egingo da, prozesua errazteko. Baldintza, defentsa eskaera eginda izana eta ondoren uztaileko deialdian aprobatazea.

### **Laneko Segurtasun eta Osasuna Unibertsitate Masterra**

- MAL prozesuarekiko tutoreen asebetetzea baloratzeko mekanismo bat ezarri da 2024-25 ikasturterako. Horri buruzko galdera bat sartu da Zuzendariaren azken txostenean.
- Webean dagoen MALari buruzko edukia doitu behar da, osorik ez dagoelako eta akatsak daude. Irakasleak, gaiak, gaitasunak, e.a.

### **Giza Baliabideen eta Enpleguaren kudeaketa masterra**

- MAL prozesuarekin tutoreek duten asebetetzea baloratzeko mekanismoak ezarri.
- Masterraren graduazio tasaren hobekuntzan lanean jarraitu. Master honek lan esperientzia ematen duenez, batzuetan ikaslegoak aspektu akademikoak bigarren maila batean jartzen du.